

"UPV/EHUko Ikertzaile Doktoreen Espezializaziorako Kontratazioa Egiteko Deialdia 2019"

OHIKO GALDERAK (FAQ)

2019/05/27an eguneratua

GARRANTZITSUA: Eskarien kopurua handia dela kontutan hartuta, Ikerketaren arloko Errektoreordetzako pertsonalarekin harremanetan jarri aurretik, egin kontsulta, mesedez, ohiko galderen zerrenda honetan, 2019ko ekainaren 13ra arte eguneratuko delarik.

Kontsultari erantzunik aurkitu ezean dokumentu honetan, eskatzaileek pre-postdoc.dgi@ehu.eus helbide elektronikora jo ahal izango dute, "Doktoreen espezializaziorako deialdia" adieraziz mezuaren gain.

ESKATZAILEAREN BALDINTZAK

Aurreikusita dut tesia 2019an zehar defendatzea. Orain aurkeztu ahal dut eskaria?

Deialdi honetan parte hartu ahal izateko, eskatzaileak doktore tituluaren jabe izan edo 6 hilabete naturalen epean lortzeko moduan egon behar du.

Doktore tituluaren jabe ez balitz, agiri bat aurkeztu behar da tesia inskribaturik duen doktorego programaren koordinatzaileak eta tesiko zuzendariak sinaturik, adieraziz eskatzailea titulua 6 hilabete naturalen epean (eskaria erregistratu deneko datatik kontatzen hasita) lortzeko moduan dagoela.

Laguntza eskatu ahal dut baldin eta unibertsitate honetan edo besteren batean antzeko laguntzarik izan badut?

Deialdiaren 3.6 oinarriaren arabera, laguntza hau bateraezina da UPV/EHUren antzeko ezaugarriak dituzten laguntzak lehenago jaso izanarekin edo aipatutako laguntzez orain baliatzearekin. Arau honek duen salbuespen bakarra da "Doktoratu berriak UPV/EHU doktorego ondoko prestakuntza programetan sartu arte kontratatzeko deialdian" lortutako laguntzen kasua. Bateragarria izango da kontratu biak aldi berean izatea.

Ikerketarako laguntza eskatu ahal dut UPV/EHUtik kanpoko zentro batean egiteko, hala nola, enpresa batean edo unibertsitatetik kanpoko ikergune batean?

Ez. Deialdiaren 2.3 oinarrian adierazten den bezala: "Kontratututakoa (...) UPV/EHUren sail, institutu edo guneren bati atxikiko zaio, doktorego tesia bertan ingo duelarik".

Non kontsultatu ahal ditut nira argitalpenek bete behar dituen baldintzak?

Baldintzak, jakintza arloka, hemen kontsultatu ahal dira.

Europar Batasunetik kanpoko ikertzaileek eskaririk aurkeztu ahal dute?

Bai, baina Espainian lan egiteko administrazio baimen baten jabe behar da izan alde aurretik.

Noiz agertu behar dute agiri hau?

Lan baimenaren kopia agertu beharko dute laguntza ebatzi eta, gehien dela, hiru hiletara.

IKERTALDEAK

Eskaria aurkeztu ahal dut nahiz eta abalatu duen ikertaldea Eusko Jaurlaritzak eta UPV/EHUK aintzat hartuta ez izan?

Ez.

Ikertalde berak eskaera bat baino gehiago abalatu ahal ditu deialdi honetan?

Bai.

Euskal gobernuaren ikertalde finkatueterako 2018ko deialdia ez da oraindik ebatzi. Aurkeztu ahal dira horko hautagaiak deialdi honetara?

Bai. Hautagai horiek badute aurkezterik, baina, nolanahi ere, eskariak onartuko da deialdi haren ebazpena zein den. Garrantzitsua da jakitea eskaria baztertu ahal dela, ikertaldearen ebazpena ezezkoa bada.

ZUZENDARI ZIENTIFIKOAK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Zuzendari zientifiko berak abalatu ahal du eskaera bat baino gehiago deialdi honetan?

Ez.

Eskatzaile berak zuzendari zientifiko bat baino gehiago izan dezake?

Ez.

Ezinbestekoa al da zuzendari zientifikoak seiurteko aktibo bat izatea?

Zuzendari zientifikoak izan beharko du, gutxien dela, Ikerketa Jarduera Ebaluatzen Batzorde Nazionalak (CNEAI) ikerketa seiurteko bizi bat (azken sei urteetan emandakoa) edo, irakasle ez iraunkorrenzat, pareko beste agentzia batek egindako ebaluazio positibo baliokidea.

Seiurteko aktiborik ez duen zuzendari zientifiko batek abalatu ahal du eskaera bat?

Salbuespen gisa, IAEk aukera emango die, kontratu-lotura dela eta, CNEAIren deialdian parte hartu ezin duten ikertzaileei ebaluatzen aukera,

horretarako kontratatutako agentzia baten bitartez.

Ebaluazio hori eskariak aurkeztutakoan egingo da, baldin eta gainerako baldintzak beteta badituzte. Ebaluazioaren emaitza negatiboa izanez gero, pertsona horiek abalatuako eskariak behin betiko baztertu dira, eta ez da izango proposatutako zuzendari zientifiko aldatzeko aukerarik.

Laguntza emango balidate, zein sail edo instituturi atxikiko nintzaioke?

Proposatutako zuzendari zientifikoaren sail edo institutuari atxikiko zintzaizkioke.

Zer baldintza gehiago bete behar ditu proposatutako zuzendari zientifikoak?

UPV/EHUREKIKO lotura funtzionarial zein estatutu edo lan kontratuaren bidezko lotura bermatua izan behar du, eskaria aurkezteko unean eta laguntzaren iraunaldi osoan zehar. Bestalde, eskaria sustatzen duen ikertaldeko kidea izango da.

Proposa al daiteke Ramón y Cajal edo Ikerbasque ikertzaile bat zuzendari zientifiko gisa?

Bai, gainerako baldintzak betetzen baditu.

Proposa al daiteke pertsonal emeritua zuzendari zientifiko gisa?

Ez.

KONTRATUAREN EZAUGARRIAK

Zer-nolako ezaugarriak dituzte eskaintzen diren kontratuek?

Kontratu hauek Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko ekainaren 1eko 14/2011 Legearen 22. artikulua jasotako eremuan daude. Kontratuaren iraupena urtebetekoa izango da, beste urte batez

luza daitekeena, aurrekontu zuzkidura nahikoa egonez gero eta onuradunak deialdiaren 2.4 oinarrian ezarritako baldintzak beteko balitu.

Noiz hasiko litzateke nire kontratua?

Kontratuak 2020ko lehenengo hiruhilekoan formalizatuko lirateke seguruenik.

Zein izango da nire soldata?

Deialdi honen baitan kontratatutako ikertzaileek jasoko duten urteko ordainsari gordina, UPV/EHUk kategorian honetan lanaldi osoko arduraldian ari den pertsonalari ezarritako diona izango da.

Kontratu hau bateragarria al da beste batzuetako indarraldiarekin?

Ez da bateragarria izango beste batekin, salbu eta 53/1984 legearen 19. artikuluko jarduerak eta 6/2001 lege organikoaren 83. artikuluan aipatzen diren erakunde edo pertsonekin egindako lankidetzak kontratuak.

Laguntza hau eskatu ahal dut baldin eta 14/2011 legearen 22. artikuluko kontraturik izan badut?

Bai, baldin eta kontratua sinatzerakoan onuradunak ez badu izan ez UPV/EHU ez beste edozein erakundetan era honetako kontratu modalitate hiru urte baino gehiagotan.

ESKAERAK AURKEZTEA

Zein da eskariak aurkezteko epea?

2019/05/14tik 2019/06/13ra.

Ba al da eskaera egiteko formularioa zuzentzerik?

Ez. Eskaera egiteko formularioa eskaeraren zatitza eta gutxieneko edukitza hartuko da eta ezin izango da zuzendu, hau da, dokumentua behar bezala osatua ez badago, eskaera hori baztertuko da.

Zer formatutan entregatu behar dira dokumentuak?

Eskaera egiteko formularioa bakarrik aurkeztu beharko da paper euskarrian,

eskuz sinaturik edo ziurtagiri digitalen bidez. Gainerako agiriak, formularioaren kopia bat PDFn barne, aurkeztu beharko dira CDn, DVDn edo pendrive-n.

CVan alegatutako merezimendu guztiak egiaztatzeko dokumentazioa agertu behar dut?

Ez da beharrezkoa fase honetan hori egitea. Ez da beharrezkoa fase honetan hori egitea. Kontuan hartzekoa da 10.2 oinarrian zehaztutako agiriak bekarrik ebaluatuko direla. Beraz, aurkezten diren gainerako agiriak ez dira ebaluatzaileari igorriko.

Nola aurkeztu behar dut eskaera?

Eskariak paperean aurkeztu beharko dira, eskatutako CD, DVD edo pendrive-arekin batera, UPV/EHUren erregistro bulegoetan entregatu beharko dira edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 legearen 16.4 artikulua dion moduan.

UPV/EHUraino joan behar al dut dokumentazioa aurkeztera?

Ez. Eskaerak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 legearen 16.4 artikuluan zehaztutako edozein bidetatik aurkeztu ahal izango dira.

Besteak beste, eskatzaileak posta zerbitzuaren edozein bulegotatik bidal dezake eskaera. Horretarako, dokumentazioa gutun azal ireki batean eraman beharko du eta posta bulegoko langileek eskaeraren lehenengo orria zigitatzen dutela bermatu beharko du, dokumentazioaren aurkezpen data adieraziz. Ondoren, dokumentazioa posta ziurtatuaren bidez bidaliko da helbide honetara:

Universidad del País Vasco/Euskal
Herriko Unibertsitatea
Ikerketaren arloko Errektoreordetza
Ikerketako Deialdien Atala
Errektoregoaren Eraikina
Sarriena auzoa, z.g.
48940 Leioa (Bizkaia)

Non daude UPV/EHUko erregistro bulegoak eta zein da bertako ordutegia?

Esteka honetan kontsulta daiteke erregistro bulegoari buruzko informazio guztia honako:

<https://www.ehu.eus/eu/web/idazkaritza-nagusia/upv/ehuko-erregistro-orokorraren-ordutegia>

Zer ordutara arte egongo dira irekita erregistro bulegoak ekainaren 13an, alegia, aurkezteko epearen azken egunean?

Erregistro bulegoak 13:00etan itxiko dira egun horretan.

Zein izango da Ikerketaren arloko Errektoreordetzak (IE) jendearen harrerarako ekainaren 13an izango duen ordutegia, eskariak aurkezteko epearen azken egunean?

14:30etan amaituko da eskatzaileentzako harrera ordutegia.

Nire eskaria bazterrean geratuko al da, zuzentzeko aukerarik gabe, baldin eta dokumentu guztiak epearen barruan eman ez badituz?

Ez, baldin eta gutxienez eskaera egiteko formularioa, guztiz osatua, epearen barruan erregistratzen bada.

Aurkez ditzaket tesi zuzendarien eta besteren sinadurak eskaneatuta?

Sinadura digitalak onartuko dira baldin eta sistema hauetako baten bidez aurkezten badira: NAN-e, administrazio publikoek onartutako ziurtagiri elektronikoa eta abar. Ez da inola ere eskaneatutako sinadurarik onartuko, paperean aurkezteko eskatzen diren dokumentuetan.

Eskaria egin ahal dut Ikertu Online aplikazioaren bidez?

Ez, aplikazioa ezin da erabili deialdi honetarako.

Euskararen jakite mailaren ziurtagiria agertu behar al da euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara maila hizkuntza tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzenetik salbuesteko apirilaren 3ko 47/2012

dekretuaren ondoriozko baliozkotzeen kasuan?

Bai, kasu honetan, eskatzaileak dagokion ziurtagiria aurkeztu beharko du.

Aurkez dezaket eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren lortutako euskara maila egiaztatzen duen ziurtagiri bat?

Ez.

Aurkeztu beharreko dokumentuek jatorrizkoak behar dute izan ala konpultsatuta?

Ez. Hala ere, kontratua esleitzerakoan, doktore tituluaren edo berori homologatzeko kredentzialaren fotokopia aurkeztu beharko da.

Nork sinatu behar du sailaren edo institutuaren baimena?

Dokumentu hau, proposatutako zuzendari zientifikoari dagokion saileko edo institutuko idazkari akademikoak sinatu behar du.

Ezinbesteko baldintza da euskara jakitea deialdi honetan parte hartzeko?

Ez. Euskara jakitea merezimendu gisa balioetsiko da eta honako era honetara puntuatuko da:

- C1 mailaren edo goragokoaren egiaztatzea eta baliokideak: 5 puntu.
- B2 ziurtagiria eta baliokideak: 3 puntu.

Eskaera euskaraz aurkeztu ahal dut?

Bai, curriculum vitae izan ezik. Dokumentu hau derrigorrez aurkeztu beharko da ingelesez.

Eskaera ingelesez aurkeztu ahal dut?

Bai.

DEIALDIAREN TRAMITAZIOA

Noizko aurreikusten da deialdia ebaztea?

Deialdia argitaratu eta sei hilabetera ebaztuko da beranduen.

Noiz eta non publikatuko da balioetsiko diren eskari onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda (akatsak zuzentzeko zerrenda)?

Zerrenda eskariak aurkezteko epea itxi eta hilabeteko epean publikatuko da ondoko estekan:

<https://www.ehu.eus/eu/web/ikerketaren-kudeaketa/-/especializacion-doctores-upvehu-2019>

Nola jakinaraziko zaie eskatzaileei ebaluaziora onartu eta baztertutako eskarien behin behineko zerrenda argitaratu dela?

IAEk jakinaren gainean jarriko ditu eskatzaileak eskaria egiteko inprimakian harremanetarako adierazi den posta elektronikoen bidez. Hala ere, zerrenda webgunean argitaratuta, legeak agindutako jakinarazpen ondorio guztiak izango ditu eta IAEk ez du bere gain hartuko adierazitako helbide elektronikoetan ez jaso izana eta eskatzailearen obligazioa izango da aldi-aldi deialdiaren inguruko informazio berria jaso ote duen egiaztatzea.

<https://www.ehu.eus/eu/web/ikerketaren-kudeaketa/-/especializacion-doctores-upvehu-2019>